



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GAITASUN LINGUISTIKOA ETA HAUR KANTAK: ENE KANTAK PROIEKTUKO ABESTIEN KASUA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Jainaga Albizu, Lorea.

ZUZENDARIA: Gurrutxaga Muxika, Alexander.

2020-2021 ikasturtea

LABURPENA

Lan honetan, Haur Hezkuntzako gelan gaitasun linguistikoa lantzeko Ene Kantak proiektuko kanten egokitasuna ikertu da. Kasu-azterketa ikerketa metodoa erabili da lana burutzeko. Alde batetik, Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarrituz, hogeita bost abestiren azterketa linguistikoa egin da; horrela, hiru azpi-gaitasun linguistiko jorratu dira: gaitasun lexikoa, gaitasun gramatikala eta gaitasun semantikoa. Beste alde batetik, Hego Euskal Herriko hamalau zentrotako irakasleei galdetegiak egin zaizkie. Bi iturri horietatik lortutako datuekin, ikerketa honek gogoeta egiteko bideak proposatu ditu eta hausnarketa prozesu baten ondoren konklusio batera iritsi da.

Hitz gakoak: Ene Kantak, haur kantak, gaitasun linguistikoa, hizkuntzaren garapena.

RESUMEN

En este trabajo se ha investigado la idoneidad de las canciones del proyecto Ene Kantak para trabajar la competencia lingüística en el aula de Educación Infantil. El trabajo se ha realizado mediante el método de investigación estudio de caso. Por un lado, en base al Marco Común Europeo de Referencia, se ha efectuado un análisis lingüístico de veinticinco canciones, abordando tres subcompetencias lingüísticas: la competencia léxica, la competencia gramatical y la competencia semántica. Por otro lado, se han realizado encuestas a profesores de catorce centros del Hegoalde. Con los datos obtenidos de ambas fuentes, este estudio ha propuesto vías de reflexión y ha llegado a una conclusión tras un proceso de meditación.

Palabras clave: Ene Kantak, canciones infantiles, competencia lingüística, desarrollo del lenguaje.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1. Ikerketaren egoera	4
2.2. Ahozko hizkuntzaren eta haurren abestien ikerketa	5
2.2.1. Ahozko hizkuntzaren garapena haurren	5
2.2.2. Haur kantak tresna didaktiko gisa	5
2.2.3. Haur Hezkuntzako curriculum	6
2.3. Komunikazio gaitasuna	7
2.3.1. Komunikazio gaitasunaren garrantzia eta definizioa	7
2.3.2. Gaitasun linguistikoa Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera	8
2.3.2.1. Gaitasun lexikoa	9
2.3.2.2. Gaitasun gramatikala	9
2.3.2.3. Gaitasun semantikoa	10
3. METODOLOGIA	12
3.1. Kasu-azterketa	12
3.1.1. Helburua	12
3.1.2. Aztergaia: Ene Kantak	12
3.2. Oinarri metodologikoa	13
3.2.1. Kanten azterketa	13
3.2.2. Irakasleei eginiko galde-sortak	14
4. EMAITZAK	15
4.1. Azterketa linguistikoaren emaitzak	15
4.2. Galdetegiaren emaitzak	17
5. EZTABAIDA	22
6. AZKEN HITZA	25
7. BIBLIOGRAFIA	26
8. ERANSKINAK	28

1. SARRERA

Haurtxoek oinez ibiltzeko joera duten bezala, hizkuntzarako bulkada azkarra dute: hiru edo lau urterekin, bere ama-hizkuntzan erabat gaitua da haur bat. Hizkuntza-trebetasunak fintzen jarraituko duen arren, diskurtsoa prozesatzeko eta egiteko beharrezko trebetasun guztiak eskuratu dira (Kuhl, 2004).

Hala ere, hizkuntzan garapen hori lortzeko estimuluak jaso behar ditu, eta, Euskal Herrian, kulturaren parte izan dira beti arlo hori garatzen lagundu diguten eta ahoz transmititu diren abesti, ipuin zein hitz jolasak. Haurrari, jaio eta sehaskan dagoenetik, beti abestu zaizkio lo kantak; zerbait aukeratzeko orduan, zotz egitekoak; edota, jolasterako orduan, olgetan egitekoak.

Gainera, hainbat ikerketatan haur kanten gaitasun linguistikoa lantzeko duten erabilgarritasuna ikusita, talde eta proiektuak sortu dira gure lurraldean. Horien artean daude Ikastolen Elkarrekin sortutako Urtxintxa proiektua, irakurketa ohiturak sustatzeko Bularretik Mintzora egitasmoa, irakasle batzuek sortutako Kantu Kolore taldea, eta beste hainbat.

Ikerketa honi dagokionez, azterketa mugatze aldera, proiektu batzuen materialen eskuragarritasun eza dela medio eta gaur egungo ikasgeletan duen maiztasuna kontutan hartuta, erabaki da Ene Kantak hartzea aztergaitzat.

Ene Kantak taldea 2011n sortu zen haurrei euskaraz irakasteko hainbat material sortzeko helburuarekin. Proiektu honetan, gai ezberdinak jorratzen dituzten abestiak sortu eta hainbat tradiziozko abesti moldatu dira.

Guzti hau esanda, lan honen helburua zera da: aztertzea Ene Kantak proiektuko kanten egokitasuna Haur Hezkuntzako gelan gaitasun linguistikoa lantzeko.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Ikerketaren egoera

Lehenik eta behin, esan beharra dago, lan honen sostengu teorikorako, estatukoez gain, nazioarteko unibertsitateetan eginiko hainbat lan eta artikuluko zientifiko hartu direla erreferentziatzen.

UNESCOren (2005) hitzetan, musika, arte eta erritu-adierazpenak gizartearen kulturaren nortasunaren ezaugarri biziak dira, eta izan dira beti. Beraz, dimentsio artistikoa gizarte bakoitzaren eduki kulturalaren osagai eta funtsezko bat da, eta, horregatik, kolektiboaren nortasun kulturala zehazten du.

Euskal Herrian, kanten eta ipuinen ahozko transmisioa garrantzitsutzat jo da urteetan zehar (bereziki Erromantizismo garaitik eta mugimendu haren eraginez), gure herriaren nortasun kulturala bermatzeko eta, horregatik, mota askotako abestien bilduma ugari egin izan dira: lo-kantak, zotz egitekoak, olgetakoak, etab., hasi Resurrección Maria Azkuek egindako *Cancionero Popular Vasco* (1925) bildumatik, zeinetan seigarren tomoan haur kantak agertzen diren, eta gaur egunera arte.

Azkuenera edo Aita Donostiarena bezalako klasikoez gain, aipatu beharrekoak dira hirurogeigarren hamarkadatik laurogeigarrenera bitartean Imanol Urbietak egindako kantuen sorkuntzak, bilketak eta argitaratzeak. Horien artean zeuden *Haur kantariak* (1967) edota *Xirula Mirula* (1977). Abestien laguntzaz Urbietak hainbat eskoletan egindako lanaren fruituak ikusita, aldaketa bat eragin eta interesa sortu zen haur kanten inguruan.

Hurrengo hamarkadetan bilduma gehiago sortzen dira: Etniker Euskalerrriak sortutako *Juegos infantiles en vasconia* (1993), Bizkaiko Ikastolen Elkarteak bultzatutako *Katuen testamentua: umeen kantu eta jolasak* (1993), Labayru Ikastegiak bultzatutako *Mixeri eta Mau: ume kantuak eta jolasak* (2006), Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasleek egindako *Eskolarako Material Lantegia* (2008) liburua, Euskal Kantuzaleen Elkarteak batutako *Haur kantak – Euskal Herriko abesti kantatuenak* (2013), etab.

Argi geratu da bilduma horiek egin direla baliagarriak direlako ikasgelara eraman eta gure gizarteko ondare artistiko eta kulturala bizirik mantentzeko. Hala ere, ikus daiteke egin diren bildumetan ez direla kantek eskaintzen dituzten aukera linguistikoak aztertu.

Horrela, bada, gure herrian kultura bizirik mantentzen lagunduko digun material ugari jaso izan arren, haur kantek linguistikoki duten balioa eta egokitasuna ezagutzeko, nazioarteko ikerketetara jo behar dugu.

2.2. Ahozko hizkuntzaren eta haurren abestien ikerketa

2.2.1. Ahozko hizkuntzaren garapena haurrengan

Hizkuntza gaitasuna gizakiok garatu dugun eta gainontzeko espezieetatik bereizten gaituen ezaugarria da. Cañaren arabera (Hernández, 1984, apud Caña, 2019), gaitasun edo bereganatze hori horrela definitzen da: haurrak bere hizkuntza menderatzea lortzen duen prozesua. Hau da, hizkuntza gaitasuna lortzeko, jaiotzen denetik sei urte bete arte, hainbat etapatatik pasatzen da haurra, askatasunez komunikatzen lortuko duen puntura iritsi arte.

Haurren hizkuntzaren garapenaz ari garenean, kontuan izan behar da garapen hori ez dela berdin gertatzen haur guztiengan, hau da, zenbait arrazoi eta faktore daudela horretan eragiten dutenak (kanpokoak zein barnekoak). Hala ere, jarraian, haurren sei urtera arteko hizkuntzaren jabeak buruzko hurbilpen bat emango da.

Lehen hitza agertu baino lehen, 10-12 hilabeteren artean, haurrak kontsonante eta bokal isolatuak igortzen ditu eta, lehenago jolasa zena, orain entzundako soinuen erantzun bilakatzen da, haurrak esaten duenak apurka-apurka zentzua hartuz. 12-18 hilabeterekin berriz, hitz batzuez gain, ikasitako hitzak soinuekin nahasten ditu eta holo-esaldiak sortu.

Bi urte betetzerako, 200 hitz inguru dakizki eta hitzen konbinaketak sortzen hasten da esaldi telegrafikoak eginez. Adin honetan aldaketa kualitatibo bat gertatzen da; nahikoa garatua baitu hitz egiteko eta ulertzeko gaitasuna. Poliki-poliki, bi eta hiru urteren artean, adjektiboen eta genero indikatzaileen erabilpena agertzen da. Lau urte betetakoan izenordainak ikasten ditu eta Haur Hezkuntzako azken etapara 2.500 bat hitz ikasita iristen da, hitzen esanahi aberatsago batekin eta sintaxi konplexuago batekin.

2.2.2. Haur kankak tresna didaktiko gisa

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, berritze pedagogiko prozesu bat gertatu zen; irakasteko modu tradizionala zalantzan jarri zuten hainbat pedagogok eta irakaskuntza eta ikaskuntza-metodo berri ugari sortu ziren. Mugimendu hori orokorra izan zen irakasgai guztien irakaskuntzan, baita komunikazioaren eta adierazpenaren arloan ere.

Hizkuntzen irakaskuntza, jolas eta konfiantza giroan, sormena garatuz egitearen proposamenak plazaratu zituzten hainbat jakitunek. Proposamen horiek urteetan ikertu

eta Froebel, Dewey edo Montessori bezalako adituetatik eratorritako eta Piaget eta Brunerren eboluzio-teoriek bultzatutako hainbat ikaskuntza-metodo aktibo sortu ziren. Metodo horiek, hain zuzen ere, haurren parte-hartzea bultzatzeko izan dira proposatuak, esperimentaziotik eta musika zientzietatik abiatuta.

Musika, hain zuzen, hezkuntza tresna aberasgarritzat hartzen zuten hizkuntzen lorpenerako; hurrek abesti berri bat entzun ondoren, kantatzeko saiakera egin ohi dutelako eta abesti bat kantatzea lorpen atsegina delako. Gainera, normalean hitzak behin baino gehiagotan errepikatzen direnez, erraz memorizatzen dira. Hala, azalpenak eta abestien hitz errepikatuak aukera ematen dute hurrek hitzak gogora ditzaten, eta, ondorioz, hurrak hiztegi berria barneratu eta hitz berriak ezagutzera eta sortzera anima ditzakete.

Gaur egun ere, hainbat pedagogo eta ikertzailek egiten dute ikasgelan abestiak tresna didaktiko gisa erabiltzearen alde.

Polat eta Ahmet (2014) ikertzaileek, beren ikerketen bidez, egiaztatu dute musika-hezkuntzak hobetu egiten duela haurren entzumen-pertzepzioa. Izan ere, abestien bidez, hurrek modu inkontzientean eta dibertigarrian barneratzen dute hiztegia.

Aquilek (2012) dioenez, aurretik dituzten jakintzetatik abiatuz, abestiak aldamiaje teknika gisa erabil daitezke ikasgelan, ikasleei hizkuntza maila guztietan hobetzen laguntzeko.

Radocy eta Boyleren arabera (2003), musika praktikak kontzientzia fonetikoa bultzatu eta hizkuntza hobetu dezake, eta aurrerago irakurmena ere bai. Musika jarduerak eginez gero, hurrek, entzumena hobetzeaz gainera, oroimena eta mugitzeko edota komunikatzeko trebetasunak garatuko dituzte.

Ildo horretatik, Ballesterosek eta Garcíak (2010) adierazi dute musikaren estimulazio egokiak hizkuntza ulergarria eta adierazkorra garatzen laguntzen duela, hizkuntza hori modu aberats eta konplexuagoan gara dadin, eta, horrez gain, haurren ahozko trebetasunak sustatzen dituela.

Horrela, bada, bistan da asko direla musikak eta, espresuki, abestiek tresna didaktiko gisa dituzten onurez idatzi duten adituak.

2.2.3. Haur Hezkuntzako curriculumak

EAEko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak tartea eskaintzen dio ahozko hizkuntzaren garapenari. Konkrétuki, beronen eta literaturaren arteko harremanaz

mintzo da, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetenziaren alorraren barruan:

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3-6 urte), jolasarekin eta esperimendarekin batera, haur-ipuak eta haurren narrazioak eta elkarrizketak dira, besteak beste, garapenerako eta ikasteko prozesuaren ardatza eta motorra. (236/15 dekretua, 28or.).

Etaparen honetan, literaturaren adierazpen xumeenak gerturatuko dizkie literatura-hezkuntzak haurrei, bizipen gozagarriak izan ditzaten, literatura-testuak entzun eta moldatuta. (236/15 dekretua, 25or.).

Beraz, gozatzeko eta jolasteko aukera emateaz gain, abestiak hizkuntza barneratzen hasteko tresna egokiak lirateke eta, nola ez, etapako hainbat helburu betetzeko, hala nola, bigarrena eta hirugarrena:

Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrezkoak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.

Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko. (236/15 dekretua, 37or.).

2.3. Komunikazio gaitasuna

2.3.1. Komunikazio gaitasunaren garrantzia eta definizioa

Urteetan zehar, hainbat uste eta irakasteredu egon dira hizkuntzaren inguruan. Aditu askok tartea eskaini diote komunikazio gaitasuna aztertzeari, eta Haur Hezkuntzako euskal curriculumean ere aipatzen da kontzeptu hori.

Gutxienez XIX. mendearen bukaeratik, garrantzitsutzat jotzen da komunikazioa. Vigotsky (1934) psikologo ospetsuak, *Pensamiento y lenguaje* liburuan, zioen gizakia izaki soziala dela jaiotzaz, sozializatzeko beharrezkoa duela komunikatzea, eta komunikazio hori sustatzea garrantzitsua dela ondoren hausnarketa eta abstrakzioarako joera garatu ahal izateko.

Garrantzi horrek gaur egunera arte iraun du, eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (2005) (aurrerantzean EEMB) helburuetako batean ere argi ikusten da: "3.Hezkuntza-maila guztietan metodo eta material egokiak txertatzeko ikerketa eta garapena bultzatu, era guztietako ikasleek, bakoitzak bere beharren arabera, komunikazio gaitasuna har dezaten." (EEMB, 2005, 23 or.)

Alabaina, arestian esan bezala, aditu askok idatzi eta aztertu dute kontzeptuaren inguruan eta, nola ez, ikertzaile bakoitzak bere erara definitu eta egin ditu azpi-gaitasunen sailkapenak.

Kontzeptuaren jatorrian Hymes dago, Chomsky hizkuntzalariari kritika egin ziona. Autore asko bat etorri dira komunikazio gaitasuna gehien eta ondoen aztertu duena Hymes izan dela esatean. Bada, Hymesek adierazten du gizakiak izan ditzakeen gaitasunen kontzepturik orokorra dela eta, gramatikaren ezagutzaz gain, parametro etnografikoek eta inguru soziokulturalak ere garrantzia dutela (Hymes, 1972, apud Etxebarria eta Garay, 2010).

Honen ostean, beste autore batzuek ere eman diote beraien definizioa gaitasun horri: Canale eta Swainek komunikazio gaitasuna bi kontzeptuk osatzen dutela adierazi zuten: batetik, ezagutzak, eta bestetik, trebetasunek (Canale eta Swain, 1980, apud Etxebarria eta Garay, 2010). Gainera, komunikazio gaitasuna lau azpi-gaitasunek osatzen dutela adierazi zuten: gramatikalak, soziolinguistikoak, diskurtsiboak eta estrategikoak (Canale eta Swain, 1983, apud Etxebarria eta Garay, 2013).

Savignonen hitzetan, berriz, komunikazio gaitasuna dinamikoa da; idatzizkoan nahiz ahozkoan agertzen da; testuinguru zehatzean ematen da; ezagutza mailakoa denez, hizketatik bereizten du; eta azkenik, erlatiboa da (Savignon, 1983, apud Etxebarria eta Garay, 2010).

Dena dela, azken hamarkadetan gaiari eman zaion garrantzia kontuan hartuta, Europako Kontseiluko hainbat aditu urteetan zehar lanean ibili ostean, kotsentsu batera iritsi eta EEMB sortu dute.

Horren arabera (2005), hiztunen helburu nagusia komunikatzea da, eta komunikazio-asmo hori gauzatzeko, gizakion gaitasun guztiek laguntzen dute ikasle edo erabiltzailearen komunikazio ahalmena nola edo hala indartzen, bai hizkuntzari lotuta daudenek zein bestelako gaitasunek. Horrez gain, Canale eta Swain eta beste zenbaiten ekarpenak kontuan hartuz, EEMBk proposatzen du komunikazio gaitasuna hurrengo azpi-gaitasunek osatzen dutela: Gaitasun linguistikoa, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun pragmatikoa.

2.3.2. Gaitasun linguistikoa Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera

Nahiz eta komunikazio gaitasun kontzeptuaren inguruko hainbat teoria izan, lan honetan, EEMB hartuko da kontuan; zehazki, gaitasun linguistikoa, hori baita aztertuko dena. Horregatik, hurrengo lerroetan EEMBk gaitasun linguistikoaren inguruan dioena azalduko da laburki.

Hasteko, horrela definitzen da kontzeptua: “mezu ongi eratuak eta esanguradunak antolatzeke eta formulatzeko baliabide formalen ezagutza eta baliabide horiek

erabiltzeko gaitasuna” (EEMB, 2005, 135 or.). Hau da, egokitasuna hartzen da kontuan arlo honetan.

Gaitasun hori ere, azpi-gaitasunetan sailkatzen da:

- Gaitasun lexikoa
- Gaitasun gramatikala
- Gaitasun semantikoa
- Gaitasun fonologikoa
- Gaitasun ortografikoa
- Gaitasun ortoepikoa

Lan honetan, azterketa mugatze aldera, hiru azpi-gaitasun landuko dira. Jarraian, bakoitzaren azalpena agertuko da.

2.3.2.1. Gaitasun lexikoa

Gaitasun lexikoak hizkuntza baten hiztegiaren ezagutza eta hiztegi hori erabiltzeko ahalmena adierazten du, eta elementu lexikoak eta gramatikalak hartzen ditu bere baitan (EEMB, 2005, 136 or.).

Gaitasun lexikoak bere baitan hartzen ditu:

Elementu lexikalak	Elementu gramatikalak
<ul style="list-style-type: none"> • Esamolde eginak <ul style="list-style-type: none"> - Formula finkoak: Agurrak, atsotitzak, etab. - Esamoldeak: Metafora lexikalizatuak, indargarriak, egitura finkoak, etab. • Hitz isolatuak: polisemia 	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbatzaileak • Erakusleak • Izenordain pertsonalak • Erlatiboak eta galdetzaileak • Posesiboak • Aditz laguntzaileak • Juntagailuak

(EEMB, 2005, 136 or.)

2.3.2.2. Gaitasun gramatikala

Gaitasun gramatikala hizkuntza baten baliabideen ezagutza eta horiek erabiltzeko ahalmena da (EEMB, 2005, 138 or.).

Antolaketa gramatikala deskribatzeko, honako alderdi hauek zehazten dira (EEMB, 2005, 138-139 or.):

- Elementuak: Morfemak, erroak, atzizkiak, hitzak...
- Kategoriak: Aditz-denbora, modua...
- Motak: Aditz-jokoak, deklinabideak, hitz-motak...
- Egiturak: Sintagmak, esaldi-klausulak...
- Prozesuak (deskribatzaileak): Nominalizazioa, eratorpena, flexioa...
- Erlazioak: Erregimena, komunztadura...

Tradizioz, bereizketa egin ohi da morfologiaren eta sintaxiaren artean:

Morfologia	Sintaxia
<ul style="list-style-type: none"> • Hitzen barne-antolaketa aztertzen du. • Hitzak morfema gisa azter daitezke: <ul style="list-style-type: none"> - Erroak - Aurrizkiak, atzizkiak eta artizkiak. • Hitzen sailkapena: <ul style="list-style-type: none"> - Bakunak: Erroa soilik; adib.: liburu. - Eratorriak: Erroa + atzizkia; adib.: liburutegi. - Flexiozko atzizkidunak: Erroa + atzizkia; adib.: liburuak. - Elkartuak: Erro bat baino gehiago; adib.: liburu-denda. • Hitzen formak aldatzeko moldeak: <ul style="list-style-type: none"> - Bokalen alternantzia - Kontsonante aldaketak - Forma irregularrak - Flexioa - Forma aldaezinak 	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzak esaldietan nola antolatzen diren aztertzen du. • Kategorien, elementuen, klaseen, egituren, prozesuen eta horien harremanen, eta arau-multzo gisa aurkezten da. • Ama-hizkuntza duena hiztun baten sintaxia oso konplexua eta inkontzientea da.

(EEMB, 2005, 140 or.).

2.3.2.3. Gaitasun semantikoa

Esanahia antolatzeko moduz duen kontzientzia eta kontrola adierazten du gaitasun semantikoak (EEMB, 2005, 141 or.).

Semantika lexikala	Semantika gramatikala	Semantika pragmatikoa
<ul style="list-style-type: none"> • Hitzen esanahiarekin zerikusia duten alderdiak aztertzen ditu. • Hitzek testuinguru orokorrekina duten zerikusia: <ul style="list-style-type: none"> - Erreferentzia - Konnotazioa - Nozio espezifiko orokorren adierazgarritasuna • Hitzen arteko erlazio semantikoak: <ul style="list-style-type: none"> - Sinonimoak/antonimoak - Hiponimoak/hiperonimoak - Erregimen semantikoa - Metonimia - Osagaien analisia - Itzulpeneko baliokidea 	<ul style="list-style-type: none"> • Elementuen, kategorien, egituren eta prozesu gramatikalen esanahia aztertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman logikoak aztertzen ditu.

(EEMB, 2005, 141 or.).

3. METODOLOGIA

3.1. Kasu-azterketa

Kasu-azterketa ikerketa-metodo bat da, eskuarki osasun- eta gizarte-zientzietan erabiltzen dena; tradizio handia du soziologian. Metodo edo teknika horren ezaugarria bilaketa eta ikerketa prozesua da, bai eta kasu baten edo batzuen azterketa sistematikoa ere. Gainera, ikerketa-eremuaren arabera, kasu-azterketa objektu edo egoera ugaritan oinarritu daiteke (Coller, 2000).

Kasu-azterketa erabiltzen duen ikertzaileak zenbait teknika erabiltzen ditu, hala nola: galdetegiak edo elkarrizketak. Horregatik da metodologia hori ez enpirikoa, eta ikerketa kualitatibo teknikatzat hartzen da; nahiz eta metodoaren garapena fenomeno baten azterketan oinarritu, ez da analisi estatistikoetan oinarritzen.

Metodologikoki, lehendabizi helburu bat definitzen da eta, horrekin batera, ikertuko den esparruaren aztergaia. Ondoren, jakin nahi denaren inguruko galde-sortak edo elkarrizketak egiten dira. Jarraian, jasotako emaitzen eta informazioaren bilketa eta interpretazioa egin eta, bukatzeko, ondorioak ateratzen dira aztergaiaren inguruan.

Tresna hau erabilia izan da lehendanik Haur Hezkuntzako kanten erabilgarritasuna lantzeko. Bilbao eta Romerok, Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasleek, ikastolen Urtxintxa proiektuko kanten aztertu dituzte.

Ikerketa horretan, emaitza batzuk jaso eta ondorioak ateratzeaz gain, oinarri metodologiko bat ezarri da: aukeratutako haur-kanten analisi linguistikoa egin da Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera eta Bizkaiko hainbat zentrotako maisu-maistrei elkarrizketak egin zaizkie. Lan honetan beste corpus bati erreparatu zaio, baina aintzat hartu da Bilbao eta Romerok baliatutako metodoa.

3.1.1. Helburua

Lan honen helburua da aztertzea ea Ene Kanten proiektuko kanten egokiak ote diren Haur Hezkuntzako geletan gaitasun linguistikoa lantzeko.

3.1.2. Aztergaia: Ene Kanten

2011an sortu zen Ene Kanten ekimena, Nerea Urbizu eta Urko Oskoz, haurren mundua ongi ezagutzen duten bi irakasle eta gurasoren eskutik. Haien ustetan, ikasgelan lantzeko euskarazko material eskasia zela eta, kanten sortzea erabaki zuten,

eta baita melodia haiei laguntzeko dantza pausoak ere. Kanta berriak sortzeaz gain, batzuetan, abesti tradizionalak berritu edo moldatu ere izan dituzte.

Abesti bakoitzeko bideo bat grabatu dute, bere koreografia errazarekin, txikiek (eta ausartzen direnek) dantzatu ahal izateko.

Hainbat abesti sortu ostean, CD eta DVDetan argitaratzera pasatu ziren, eta hauen salmentarekin lortutako etekinaren zati bat, euskara sustatzen edo euskaraz lan egiten dutenei ematen diete.

Haien hitzetan, proiektua zabaltzeko nahitaezkoa izan da jende ospetsuaren parte-hartzea. Parte-hartzaile gonbidatu horien artean: musikariak, bertsolariak, kirolariak, artistak eta idazleak aurki daitezke. Eta ezin ahaztu ikastetxeetako haurrak ere: Euskal Herriko hainbat ikastetxetako haurrek abestiak dantzatu eta grabatu dituzte, eta horiek dira bideoklipetan ageri direnak.

Dagoeneko sei disko kaleratu dituzte 10 urte hauetan, eta, tartean, haien abestiekin sortutako hiru ikuskizun sortu.

Arrakasta nabarmena izan du ekimenak, hala eskoletan nola euskal familien artean. Horri erantzunez, ETBk interesa erakutsi zuen, eta 2019tik ETB3ko programazioaren parte garrantzitsu bat betetzen dute Ene Kantak proiektuko saioek.

3.2. Oinarri metodologikoa

Lan honen oinarri metodologikoak bi ildo uztartzen ditu. Batetik, kanten azterketa testuala egin da. Bestetik, berriz, azterketa intratestualaren osagarri gisa, irakasleei galdetu zaie, abestiek gaitasun linguistikoaren garapenean izan dezaketen onura posiblez eurek duten pertzepzioaren berri izateko.

3.2.1. Kanten azterketa

Analisi linguistikoa egiteko kantak ez dira edonola aukeratu, hainbat irizpide hartu dira kontuan hogeita bost kantatako multzoa osatu den arte. Abestiaren idazlea zein izan den kontuan harturik, honelako aukeraketa egin da: musikariek idatzitako abesti bat, bertsolariek idatzitako bi, irakasleek idatzitako beste bi eta, azkenik, Ene Kantak taldeko kideek idatzitako hogeit. Modu horretan, corpus osoaren isla den zati proportzional bat osatu da kanten idazleak kontuan hartuz (ikus 1. eranskina).

Era guztietako abestiak izateari ere erreparatu zaio, hau da, aniztasuna egon zedin, egileez gain, kantuen luzerak eta jorratzen dituzten gaiak ere hartu dira kontuan.

Horretarako, Ene Kantaken abestiak azpimultzotan sailkatu dira, eta, gero, sortutako azpi multzo bakoitzetik pare bat pieza hautatzean, gai aldetikako aniztasuna egotea eta abesti labur eta luzez osatutako multzo bat eratzea lortu da (ikus 1. eranskina).

Horrez gain, aukeraketa egiterako orduan, kontuan hartu dira irakasleek bete duten galdetegian aipatu dituzten kanta asko ikerketaren emaitzak errealitatean jasotzen denetik ahal bezain gertuen egon daitezen.

Gauzak horrela, sorta aukeratua izanik, arestian esan bezala, EEMB oinarritzat hartu da abestiak linguistikoki aztertzeke, eta azpi-gaitasun lexiko, gramatikal eta semantikoak jorratu dira.

3.2.2. Irakasleei eginiko galde-sortak

Hego Euskal Herriko hainbat herritako Haur Hezkuntzako irakasleek hartu dute parte ikerketa honetan: Antsoain, Atarrabia, Txantrea, Gasteiz, Legutio, Durana, Hernani, Mendaro, Bilbo, Ondarroa eta Markina-Xemein (ikus 2. eranskina).

Irakasleekin korreo bidez kontaktatu da, eta prestatutako galde-sorta idatziz zein ahoz erantzuteke aukera eman zaie. Galdekizuna era askean erantzuteke bost galderez osatua dago, irakasleek libreki eman dezaten beraien iritzia eta, horrez gain, galderekin erlazionatutako beste hainbat kontzeptu aipatu edota datu eman ditzaten (ikus 3. eranskina).

Lehenengo bi galderek Ene Kantakeko abestien erabileraren inguruko informazioa lortzeko balio izan dute. Lehenengo galderaren bidez, Ene Kantakeko abestien erabileraren maiztasuna eta horiek erabiltzearen zergatia edo helburua jakin nahi izan da. Bigarren galderaren helburua, berriz, irakasleen artean gehien erabiltzen dituztenak jakitea izan da; azterketarako kanta aukeratzeko orduan, ahal den neurrian, aipatutako abestiak kontuan izateke.


Gainontzeko galderek gaitasun linguistikoaren azpiatalekin dute lotura. Hirugarren galderaren bidez, jakin nahi izan da Ene Kantakeko abestiak egokiak diren gaitasun lexikoa lantzeko. Laugarren galderaren bidez, ikertu nahi izan da ea baliagarriak diren Ene Kantakeko abestiak gaitasun lexikoa lantzeko. Bosgarren eta azken galderaren bidez, aztertu nahi izan da Ene Kantakeko abestiek laguntzen ote duten gaitasun semantikoa lantzeko.

4. EMAITZAK

Atal honetan ikerketan jaso diren emaitzak agertuko dira: lehenbizi, azterketa linguistikotik jasotako datuak eta, ondoren, galdetegietaik ateratakoak.


4.1. Azterketa linguistikoaren emaitzak

Ene Kantak proiektuko hogeita bost abesti aztertu ostean, hizkuntzaren baitako hainbat ezaugarri bereizi ahal izan dira (guztiak ere metodologiari dagokion atalean adieraziak). Lehen azpiatala elementu lexikalei dagokiena da.




Irudian ikus daitekeen bezala, elementu lexikalak hogeita bost abestiko sortatik hamasei abestitan aurki ditzakegu. Hamasei horietatik hiru abestitan soilik formula finkoak daude; bost abestitan hitz polisemikoak (eztia [janaria/goxoa], antza [itxura/kiratsa], beharra [premia/lana]...); eta hamahirutan esamoldeak, horien artean indargarriak (labe bete, ziztu bizian, sukarrak jota...), egitura finkoak ([zerbaitetaz] fidatu), esapideak (laino egon, lasai hartu, hau da hau...), etab.

Behaturiko hurrengo atala elementu gramatikalena da. Kasu honetan, zazpi motatako elementu linguistikoak aztertu dira.




Elementu gramatikalei dagokienez, aniztasuna handiagoa da, eta aztertutako abesti denetan aurki daitezke mota bateko edo bestekoak. Zenbatzaileak ([zenbaki hitzak], adina, asko...) hamabost kantatan agertu dira, erakusleak eta izen ordain pertsonalak bost kantatan, erlatibozkoak eta galdetzaileak (nor, non...) lautan, posesiboak (ene, nire...) hamarretan, aditz laguntzaileak (naiz, dut...) hogeita batetan eta juntagailuak (eta, ala...) hogeikantatan.

Morfologiak hitzen osaera aztertzen du eta era honetan sailkatzen ditu hitzak. Hurrengo irudia morfologiari dagokiona da.




Gaitasun gramatikalararen esparruan, morfologiari dagokionez, hitz bakunak (begi, kolore, urre, tronpeta...) eta flexiozko atzizkidun hitzak (eguzkia, etxeko, ahoarekin...) ia abesti denetan aurki daitezke. Hitz eratorriak (ibilera, edertasun, garbitzaile...), berriz, hogeita bostetik zazpi abestitan, eta hitz elkartuak (igogailu, ogitarteko, babesleku...) zortzi abestitan. Horrez gain, zenbait aditzondo eta izenondo antzeman dira, eta baita postposizio eta interjekzio gutxi batzuk ere.

Gaitasun gramatikalak morfologia eta sintaxia hartzen ditu bere baitan. Hurrengo atala sintaxiari dagokiona da.



Sintaxiari dagokionez, egitura sinpleak agertzen dira abestietan, batez ere, esaldi bakunak eta “baina” edo “eta” lokailu bidez osatutako esaldi konposatuak aurki daitezkeelako. Menpeko perpausak hogeita bostetik zortzi abestitan bakarrik agertzen dira, eta agertzen direnak ere sinpleak dira, gehienak “bait-” aurrizkiarekin eta “-ko” atzizkiarekin osatuak.

Azken atala gaitasun semantikoarena da. Semantika lexikala, semantika gramatikala eta semantika pragmatikoa azpi atalak aztertu dira.



Gaitasun semantikoari dagokionez, hiru azpi-gaitasunak aztertu dira. Semantika lexikala hogeita bostetik hogeita bi abestitan antzeman da, hau da, mezuaren esanahia ulergarriagoa izateko erreferentziak egin dira (gehien bat hurrei), sinonimia erabili da (goxoa/eztia, akatsak/okerrak..), edota, testua aberasteko, antonimia (politak/itsusiak, eskuin/ezker...), hiponimia eta hiperonimia ([koloreak] berdea, horia, gorria...), eta abar. Semantika gramatikalari dagokionez, abesti batzuetan estruktura gramatikal bera errepikatu da hurrei ulermenean laguntzeko, eta semantika pragmatikoari buruz esan daiteke, abestien autoreek asmatutako hitz, jasotako atsotitz edota onomatopeiak testuinguruaren laguntzaz ulergarriak izan direla.

4.2. Galdetegien emaitzak

Guztira hamalau irakasleren emaitzak jaso dira eta jasotako iritzien artean egoera linguistiko desberdin ugariarekin egin da topo. Maisu-maistra gehienek galderak arrazoituta erantzun dituzte; hala ere, jaso dira justifikatu gabeko erantzun batzuk ere.

Lehenengo galderarekin jakin da, Ene Kantakeko abestiak hurrei maiztasun handiz jartzen zaizkiela ikastetxe askotan, batzuetan egunero, abestiak errutinen parte baitira; hala ere, badira kanta hauek gutxitan erabiltzen dituzten ikastetxeak ere, eta hiruzpalau irakaslek aipatu dute horren zergatia:

Ez ditugu sarritan jartzen. Kantu kolore, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abestiak aurre hartu diete. (4. irakaslea)


Gure metodologia dela medio (zirkulazio autonomoa) ez dugu ekintza gidaturik egiten eta, gainera, gurean pantailek eta ikus-entzunezkoek ez dute presentzia askorik. Aitzitik, esperimendazioan eta manipulazioan oinarritzen gara. Hortaz, inoiz gutxitan jartzen dizkiegu abestiak ordenagailuan. (11. irakaslea)

Irakasleen esanetan, Ene Kantak baliabidea erabiltzearen helburu nagusiak, batez ere, hizkuntza lanketa eta edukien jorratzea dira. Hurrengo mailan egongo litzateke gozamina, heren batek soilik aipatu batu haurren gozamenerako jartzen dituela. Maila berean, haurrei abestiak euskara entzun dezaten jartzea agertzen da.


Eskola askotan euskara bultzatzeko helburuarekin jarri izan ohi dira. Gazteleraz hitz egiten den lekuetan euskara entzuteko bada ere, nahiz eta haurrek ezer gutxi ulertu, jarri egiten dira. (7. irakaslea)

Azkenik, gutxi batzuek aipatu dute erabilgarriak direla errutinetan laguntzeko, dantza eta gorputz mugimenduak koordinatzeko edota musika hezkuntza lantzeko: erritmoa, doinua, testura, etab.

Bigarren galderaren bitartez, gehien entzuten dituzten abestien zerrenda egitea lortu da: “Astonauta”, “Polonesa” eta “Alemana” (erraldoienak), “Animalien ibilkera”, “Tortotxiki”, “Goazen komunera” eta “Hiru Txerrikumeak”. Horiez gain “Azokara”, “Garraioak”, “Jasotzera”, “Elurra mara-mara”, eta beste zenbait aipatu dira.



Jarraian, ikerketaren helburuarekin loturiko galderak (azpi-gaitasun linguistiko bakoitzari loturikoak) agertzen dira. Lehena gaitasun lexikoari dagokiona da.




Irudian ikus daitekeen bezala, hirugarren galderan hamalautik hamahiru irakaslek baiezkoa erantzun dute; hiztegi, esamolde eta esaldi sinpleak erabiltzen dituztela arrazoituz edota bertan aipatzen diren hitzak keinuz laguntzen direnez, erraz barneratzen direla esanez. Alabaina, irakasle batek beste erantzun bat eman du:

Euskarazko beste euskarri bat eskaintzeko beste euskarri bat izan daitezke, alegia (edozein kantu eta testu literario izan daitezkeen bezala). Badira abesti batzuk, estruktura errepikakorra eskaintzen dutenez, errazak direnak buruz ikasi eta errezitatzeko. Hauek, estruktura gramatikala zein hiztegia lartzeko aproposak suerta daitezke.

Esan behar dut, ordea, beste zenbait abesti pobreak eta zentzugabeak iruditu izan zaizkidala. Pertsonalki, atseginago ditut beste euskarri batzuk, Pirritx eta Porrotxena kasu. Askozaz aberatsagoak suertatzen zaizkit hizkuntza mailan zein eskaintzen duten mezu eta baloretan. (11. irakaslea)

Hurrengo irudia, bigarren azpi atalari, hau da, gaitasun gramatikalari dagokion galdera da.




Irudian antzeman daitekeen moduan, erantzun askotarikoak egon dira laugarren galderan. Hamar irakaslek baiezkoa erantzun dute, gehienek gaitasun lexikoa lantzeaz batera gaitasun gramatikala ere lantzen dela arrazoituz. Irakasle batek dioenez, nahiz eta Haur Hezkuntzako haurrak abestiak errepikatzekeo gai izan, ez daki hori nahikoa litzatekeen gramatika barneratzeko. Beste irakasle batek argi du Ene Kantakeko abestiek ez dutela balio gaitasun gramatikala lantzeko:

Nire kasu zehatzean, bost urteko ikasleekin, oso haur euskaldunak izanik, gaitasun gramatikala nahiko egokia dute; eta haien ama hizkuntza euskara denez, ez dute zailtasun berezirik, orduan ez nuke esango abesti hauek entzutean arlo horretan eragiten dienik ikasleei. (5 .irakaslea)

Iritzi honen antzekoa da 11. irakaslearena, baina arestian aipatu bezala, nahiz eta kantak pobreak iruditu, beste edozein euskarriren moduan hurrei ekarpenak egiten dizkielako ustea du. Azkenik, beste irakasle batek uste du abesti hauen ekarpena haurren abiapuntu edota bizi diren herriaren arabera dela:

Kontraste handia dago lekutik lekura, Ondarroan adibidez hiru urteko gelan abestia oso osorik kantatzen dute, esaten dutena ongi ulertuz eta abestiek kantatzen dutena ikasteko baliogarriak dira: planeten inguruan, astronauten inguruan... baina Bilbon adibidez, melodia badakite baina letra asmatuz abesten dute, beraz euskara entzun eta haren logika ikasteko balio dute. (7. irakaslea)



Bosgarren galderan, jakin nahi izan da ea irakasleen uste Ene Kantakeko abestiek laguntzen ote dieten hurrei euren ulermen gaitasuna hobetzen. Irudian ikus daitekeen moduan, irakasleen gehiengoak baiezkoa erantzun du, euskarara gerturatzeko baliabide ona dela arrazoituz:

Pila bat, honen bidez euskara gertuko zerbait gisa ikusten baitute, nahiz eta etxean euskaraz ez egin badoaz hitz eta egitura ezberdinak barneratzen. Eta entzumen ulermena asko lantzen dute, hitz berri eta formula ezberdinak eskuratuz. (2. irakaslea)

Eta euskarazko letrak izateaz gain, bideoetako irudi zein dantzariak egiten dituzten keinuek ulermenean laguntzen dutela esanez:

Irudien erabilerak umeen ulermenean laguntzen du. Hitza bera eta irudia, esaldia bera eta keinuak... (6. irakaslea)

Hizkuntzaren beste alderdi garrantzitsua da ulermena. Haur hezkuntzan ez dakite irakurtzen eta bideoen, irudien eta keinuen laguntza behar dute ikusten dutena ulertzeko. (10. irakaslea)

Baiezkoetz gain, 5. irakasleak ezezkoa eman du, bere ikasgelako maila linguistiko aberatsarengatik (Ene Kantakeko maila baxua dela esanik), eta beste bi irakaslek esan dute onura posible hori haurren abiapuntuaren edo bizi diren herriaren araberakoa dela.

5. EZTABAIDA

Emaitzak plazaratu ondoren, ikerketaren helburura jo behar dugu berriz: Haur Hezkuntzako gelan gaitasun linguistikoa lantzeko Ene Kantak proiektuko kantak egokiak ziren ala ez aztertzeko abiatu zen lan hau. Esan beharra dago, emaitzetan ikus daitekeen bezala, abestitik abestira desberdintasunak daudela azpi gaitasun linguistikoei dagokienez; dena dela, ondorio orokorrak aterako dira. Hori esanda, jarraian, atalez atal abestien azterketatik eta irakasleei egindako galderetatik ateratako informazioa aztertuko da, eta emaitza horiek marko teorikoan aipatutako hainbat adituren esanekin uztartuko dira.

Gaitasun lexikoaren atalari dagokionez, irakasle ia denek diotenez, Ene Kantakeko abestiak egokiak dira ahozko hizkuntza lantzeko; hiztegi, esamolde eta egitura sinpleak erabiltzen dituztelako eta, beraz, haurrei errazak egiten zaizkielako barneratzeko. Ballesteros eta García (2010) ere ados daude horrekin, musikaren estimulazioak hizkuntza garatzen eta aberasten laguntzen duelako eta, gainera, haurraren ahozko trebetasunak sustatzen dituelako.

Dena den, gaitasun lexikoak bere baitan elementu lexikoak eta gramatikalak hartzen ditu, eta, azterketa linguistikoan ikusi bezala, elementu lexikoak abestien ehuneko hirurogeian agertzen dira soilik, eta agertzen diren formula finakoak oso urriak dira. Beraz, abesti hauek aukera ona dira zenbatzaileak, erakusleak, izenordain pertsonalak eta abar ikasteko, baina ez, ostera, agurrak, atsotitzak, indargarriak eta esapideak ikasteko.

Gaitasun gramatikalari erreparatuz gero, ikus daiteke bat datozela iturri bietatik jasotako emaitzak. Batetik, azterketa linguistikoan jaso da abestiotan mota ezberdinetako hitzak, deklinabide ugari eta esaldi bakun zein konposatu sinpleak (gehien bat “eta” lokailuaz sortuak) agertzen direla. Bestetik, irakasleek ere errutinetarako baliagarriak zaizkien esaldi sinpleen presentzia adierazi dute, gaitasun gramatikala lantzeko tresna egokiak direla argudiatuz.

Maisu-maistrek lanketa espezifikoko bat egin ondoren jarri ohi dituzte abesti hauek, eta, hiztegia lantzeaz gain, euskarazko esaldien ordena indartzeko erabiltzen dituzte, esaldien sinpletasuna nabarmenduz. Izan ere, Aquilen (2012) ustetan, aurretik dituzten jakintzetatik abiatuz, abestiak andamiaje teknika gisa erabil daitezke ikasgelan eta horrek, ikasleei hizkuntza maila guztietan hobetzen laguntzen die. Badaude alderantziz egiten duten irakasleak ere, hau da, ikasleek ehuneko ehunean euskarazko formak

jakin ez arren, kantan jarri eta ondoren eguneroko dinamiketan horietatik ateratako esaldiak erabiltzen dituztenak.

Gaitasun semantikoari dagokionez, ikusi da azertu diren hogeita bost kantetatik gehienetan elementu aipagarriak daudela. Horrez gain, irakasle askok berretsi dute abestiek estruktura errepikakorrek dituztela eta, beraz, haiek diotenez, errazak direla erreproduzitzeko eta ikasteko. Hain zuzen, aditu askok bultzatu dute ideia hori, arestian esan bezala, abestien hitz errepikatuek aukera ematen baitute haurrek hitzak gogora ditzaten; eta, ostean, haurrak hitz berriak ezagutzera, ulertzera eta barneratzera eramanez dituzkete. Gainera, azterketan ikusi da letretan erabiltzen dituzten asmatutako hitzak (astonauta, satorjator, etab.), atsotitzak edota onomatopeia apurrak ulertterazak direla, eta, bestela, haurrak gai direla testuinguruarekin ulertzeko.

Oro har, galdetegi bidez jaso da Ene Kantakeko abestiek laguntzen dietela haur txikienei ahozko hizkuntza espontaneo ulertzen eta garatzen, eta lanketa hori garrantzitsua da, ondoren idazketa eta irakurketa prozesuan onurak ekarriko dizkielako. Radocy eta Boylek (2003) beraien ikerketarekin hori bera sostengatzen dute, alegia, musika praktikak kontzientzia fonetiko bultzatu eta aurrerago irakurmenean lagundu dezakeela.

Laburbilduz, ikerketaren bidez jakin da Ene Kantakeko abestiak, gaitasun lexikoari dagokionez, oso aberatsak direla elementu gramatikaletan, baina ez elementu lexikaletan. Gaitasun gramatikalari dagokionez, motako askotako hitzak eta esaldi bakun nahiz konposatuak erabiltzen dituzte, baina ez menderakuntzazko esaldirik; hau da, abestien hizkuntza mailari dagokionez sinpletasuna da nagusi, eta letrak ez dira jantziak. Gaitasun semantikoari dagokionez, berriz, nahiz eta ulermenean laguntzeko baliabide askorik erabili ez, ulertterazak dira beraien sinpletasunari esker.

Azpi gaitasunez gain, maisu-maistren erantzunetatik jaso diren iritziak ere kontuan hartu behar dira abesti hauen egokitasunaren inguruan hitz egin eta eztabaidatzerakoan. Denek egiten dute bat esatean abestiak entzuteak eta gorputza mugitzeak plazera ematen dietela haurrei, eta, gainera, ekintza horiek hiztegia eta gramatika era dibertigarrian barneratzera eramanez dituela. Euskal curriculumak ere babesten du bizipen gozagarrien bidez literatura-hezkuntza zabaltzea, eta Polat eta Ahmet (2014) ikertzaileek egiaztatu zuten musika-hezkuntzak hobetu egiten duela haurren entzumen-pertzepzioa, eta haren bidez haurrek modu inkontzientean eta dibertigarrian barneratzen dutela hiztegia.

Hala ere, aztertutako kantak gehiago edo gutxiago erabiltzen dituzten irakasleen erantzunak jaso dira. Gehiengo baten ustez, Ene Kantakeko abestien sinpletasuna baliagarria da hurrei edukiak eta egiturak apurka-apurka ikasten laguntzeko; asko erabili ohi dituzte ikasgelan, abestien hitzak soilak izanik, euskarara hurbiltzeko tresna aproposa direla diote.

Beste batzuen ustez, abestien sinpletasun horrek ulermenean aurrerapausoak ekar ditzake, baina haurren abiapuntuaren arabera; beraz, haien haurrak gaitasun linguistikoa nahiko garatua dutenez, ez dituzte ikasgelan jartzen.

Aldiz, irakasle bakar batek dio ama hizkuntza euskara duten haurrentzat abestiek ez dutela zailtasun berezirik eta, beraz, ez dietela ekarpen handirik ere egiten; hori dela eta, irakasle horrek ez ditu normalean jartzen ikasgelan. Izan ere, marko teorikoan aipatu den bezala, hizkuntzaren garapenaz ari garenean, kontuan hartu behar da hainbat faktorek eragiten dutela horretan, hala nola haurraren egoerak, ama hizkuntzak eta testuinguru soziokulturalak.

6. AZKEN HITZA

Lan honek Ene Kantakeko abestien egokitasun linguistikoa aztertzea izan du jomuga. Batetik, EEMBn oinarrituz hogeita bost abestiri egindako azterketa linguistikoa eginez, eta, bestetik, Hego Euskal Herriko hamalau zentrotako irakasleen erantzunen bitartez, hasieran formulatutako galderari erantzutea lortu da.

Horrela, bada, frogatu ahal izan da abesti hauek egokiak direla, baina ikasle tipologia batentzat: ama hizkuntza euskara ez dutenentzat edo inguru ez euskaldun batean bizi direnentzat.

Lana amaituta, aberasgarria da horrelako prozesu batean egindako bideari begiratu eta indargunez edota hobetu beharreko alderdiez konturatzea. Ikerketa hasi zenean, ez ziren kontutan hartu ikasleen hizkuntza maila ezberdinak. Maisu-maistren erantzunetan, aldiz, ikusi da faktore horren garrantzia hainbat alditan azpimarratu dela. Jasotako erantzunetatik, irakasleen erdiak baino gehiagok baloratzen du Ene Kantakeko abestien sinpletasuna; izan ere, haien esanetan, beraien ikastetxeetako premiak betetzeko balio erantsi bat da sinpletasun hori.

Ikerketa hau lehendik egindako beste ikerketa batzuen ildoan kokatu da, bereziki gertutik jarraituz, lanean zehar aipatu bezala, Urtxintxa proiektuari buruz egindako ikerketa. Ezinbestean, lan hau abiapuntu bat baino ez da kanten gaitasun linguistikoa garatzeko eskain dezaketenaren inguruan murgiltzeko. Hobetze aldera, etorkizunean lan honen jarraipena egingo banu, haurren hizkuntza maila kontuan hartzeaz gain, galderak egiteko modua beste era batean planteatuko nuke. Nahiz eta irakasle gehienek beraien erantzunak argudiatu, izan dira gutxi batzuk galderei era laburrean erantzun dietenak, eta haien iritzia jakiteak azterketa aberastuko luke. Horren ondorioz, galderak birplanteatu beharko lirateke edota zuzeneko elkarrizketak egin.

Bestalde, ikerketari jarraipena eman eta hartan sakontze aldera, corpusa handitzea aukera ona litzateke, Ene Kantakek sortutako kanten laurdena aztertzeatik erdiak aztertzerara igaroz. Horrek datu gehiago emango lituzke haien egokitasunaren inguruan eztabaidatzeko.

Bukatzeko, Urtxintxa eta Ene Kantakeko materiala partzialki aztertua dagoenez, interesgarria litzateke beste proiekturen bateko abestiak aztertu eta irakurketa konparatuak egitea; lanaren hasieran aipatu bezala, Euskal Herrian haur kanten material ugari baitago.

7. BIBLIOGRAFIA

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztuta eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15a.

Agirreagoitia, M. (2018). 3.GAIA. *HARREMAN SOZIALAK*. Argitaratu gabeko materiala.

Asrifan, A. (2009). Using songs in teaching English language for the young learners. *ParePare: unpublished*.

Aquil, R. (2012). Revisiting songs in language pedagogy. *Journal of the National Council of Less Commonly Taught Languages*, 11 (1), 75-95 or.

Bilbao, J. & Romero, A. (2020). Gaitasun linguistikoa Haur Hezkuntzako kantetan: Urtxintza proiektuko kanten kasua. In *XXVI Jornadas de Investigación en Psicodidáctica* (pp. 189-205). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Brandt, A. K., Slevc, R., & Gebrian, M. (2012). Music and early language acquisition. *Frontiers in psychology*, 3, 327. <https://www.frontiersin.org/articles/10.3389/fpsyg.2012.00327/full>

Bueno, M. I., & Sanmartín, M. A. (2015). *Las rimas, trabalenguas y canciones como estrategias metodológicas para estimular el desarrollo del lenguaje en niños y niñas de 3 a 4 años de edad del Centro Infantil del Buen Vivir Ingapirca, de la comunidad de Ingapirca de la parroquia Santa Ana, cantón Cuenca, provincia del Azuay*. [Grado Amaierako Lana]. Universidad Politécnica Salesiana, Cuenca. <https://dspace.ups.edu.ec/bitstream/123456789/8892/1/UPS-CT005106.pdf>

Caña Zapata, S. A. (2019). *LAS CANCIONES INFANTILES COMO HERRAMIENTA DIDÁCTICA PARA EL DESARROLLO DEL LENGUAJE ORAL DE LOS ESTUDIANTES DE SEGUNDO AÑO DE EGB DE LA UNIDAD EDUCATIVA "LUIS ALFREDO MARTÍNEZ* (Master amaierako lana). Universidad Tecnológica Indoamericana, Ecuador. <http://201.159.222.95/bitstream/123456789/1191/1/CA%c3%91A%20SILVIA.pdf>

Coller, X. (2000). *Estudio de casos*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.

Ene Kantak (2011). *ENE KANTAK*. <https://enekantak.org/>

- Etxebarria, A., & Garay, U. (2010). Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (73), 39-48.
- Etxebarria, A., & Garay, U. (2013). *Komunikazio-gaitasuna: Lehen Hezkuntzako irakaslegaiak trebatzen*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Europako Kontseilua – HABE (2005). *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*. Hemendik eskuratua: https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/eu_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf
- Lizarraga, I. (2018). *Garapenaren psikologia eskola adinean 2gaiaHH17*. Argitaratu gabeko materiala.
- Lopez, M. B., & Nadal, I. (2018). La estimulación auditiva a través de la música en el desarrollo del lenguaje en Educación Infantil. *Revista Electrónica de Investigación y Docencia (REID)*, (20). <https://revistaselectronicas.ujaen.es/index.php/reid/article/view/3729>
- Murillo, J., Payeta, A. M., Martín, I. M., Lara, A. J., Gutiérrez, R. C., Sánchez, J. C. S., & Moreno, R. V. (2013). Estudio de casos. (*Trabajo fin de estudios sin publicar*). Universidad Autónoma de Madrid, Madrid.
- UNESCO (2005): *Convención sobre la Protección y Promoción de la Diversidad de las Expresiones Culturales* (Paris, urriak 20).
- Vigotsky, L., 1934 (2010). “La teoría de Piaget sobre el habla y el pensamiento del niño”, in *Pensamiento y lenguaje*, Paidós, Bartzelona.
- Zelaieta, E. (2015). *Irakaslegaiak komunikazio-gaitasunean eta diskurtso akademikoetan trebatzeko bidean*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

8. ERANSKINAK

1. eranskina: Abestien zerrenda, sailkapena eta aztertze aukeraturiko abestiak.

Xeheki aztertze aukeratu diren abestiak azpimarratuta daude.

Animaliak:

1. Animalien ibilkera
2. Xamur katua
3. Hartzaren siesta
4. Nor ote?
5. Sukaldeko mahaitxo
6. Oneka
7. Itsasoko arrainak
8. Arantza naiz
9. Perez sagutxo
10. Kilikon
11. Astonauta tronpeta flauta
12. Satorjeitor
13. Lur azpian bizi naiz
14. Iletik ilera
15. Azokara
16. Dinosaurioa banintz
17. Txingurriak
18. Astotxiki eta satortxiki
19. Izotzetako erregina
20. Zeinen alboan?

Pertsonaiak:

1. Urtaro zuriko emakumea
2. Gizon handia
3. Bikingo ile horidunak (Oiane Yarza)
4. Pako-paki
5. Gora gure gayarre

Nitasuna:

1. Goazen komunera
2. Zenbatzen (Josetxo Oloriz)
3. Besarkatu
4. Pozik bazaude
5. Izarrak goian (Gorka Urbizu)
6. Zeure burua onartu (Egoitz Garro)
7. Maitasuna banatuko dugu
8. Zaindu itzazu lagunak (Julio Soto)
9. Handienen pare
10. Amesgaiztoak
11. Ausartak
12. Behar zaitut
13. Ez dut nahi
14. Giza aparatuak
15. Bihotzetik garunera - garunetik bihotzera
16. Ipurdi-ipurdi

Gai sozialak:

1. Zu gabe (Igor Elortza)
2. Azaroak 13
3. Glu eta glu (Arkaitz Goikoetxea)
4. Ozonotxo
5. Birziklatu
6. Kontuz mugikorrek
7. Alzheimer
8. Dravet
9. Chipko
10. Eskerrik asko!

Eguraldia eta urtaroak:

1. Elurra mara-mara
2. Udazkena
3. Neguko oporrak
4. Maite dut negua
5. Negua heldu da

Ospakizunak eta festak:

1. Afarria
2. Ongi etorri urte berri
3. Zuri zorionak
4. Polonesa
5. Alemana

Lo-kantak:

1. Egizu lo (Eñaut Elorrieta)
2. Ilunetan ipurtargi (Gotzon Barandiaran)

Jolaserako kantak:

1. Ibilerak
2. Esku trebeak
3. Kilimak
4. Orritxoaren dantza

Irakasleentzat:

1. Ipuinerako (Julio Soto)
2. Jasotzera
3. Ordua dugu ia
4. Hiru txerrikumeak
5. Txanogorritxo
6. Astelehena da

Bertsoa:

1. Aurrenekoa
2. Azkena

Euskera:

1. Lotsa galdu
2. Eman bidea euskal herria irratuari
3. Tortotxiki
4. Gora Euskara


Besteak (lekuak, tresnak...):

1. Musika tresnak
2. Garraioak
3. Koloreak (Julio Soto)
4. Bizkotxoak
5. Hiriburuak
6. Urrutian helikopteroa
7. Planetak ikastera! (Oiane Yarza)
8. Ilargi amandrea
9. Manolito hezurtxoak
10. Aldrebeskeriak
11. Ene kantak
12. Tximinoaren izozkia
13. Egun on

Herrikoiak:

1. Arareita
2. Egizu lo (moldatua)
3. Adi-adi (jolasa)
4. San fermin
5. Ixil ixilik
6. Olentzero
7. Agure zahar negu
8. Hator-hartor
9. Ole olentzero (moldatua)
10. Ikusi nuenean (moldatua)
11. Mari-maritxu (moldatua)
12. Buhamiek

2. eranskina: Parte-hartzaileen kokapena.



1. Antsoain
2. Atarrabia
3. Txantrea
4. Legutio
5. Durana
6. Gasteiz 1
7. Gasteiz 2
8. Gasteiz 3
9. Hernani
10. Mendaro
11. Markina
12. Ondarroa
13. Bilbo 1
14. Bilbo 2

3. eranskina: Galdetegia.

GALDETEGIA

1. Ene Kantakeko kantak jartzen al dituzue ikasgelan? Zenbatero? Zer helbururekin?
2. Zein dira erabiltzen dituzunak? Zein gehien?
3. Zure ustez, balio al dute hiztegi berria barneratzeko? Esamoldeak, zenbatzaileak, izen ordainak, erakusleak, lokailuak...
4. Baliagarriak al dira gaitasun gramatikala lantzeko? Hau da, aditzak ikasteko, esaldien ordenan fijatzeak, euskararen logika barneratzeko...
5. Zure ustez, laguntzen al diete haurrei ulermen gaitasuna hobetzen?